

ZINEMATEKA

# Azkuna Zentroa eta Golem. Hamar zinema-urte, hamaika ikusteko

## Azkuna Zentroa y Golem. Diez años de cine, una década de película

Zinema zikloa / Ciclo de cine



2020 UZTAILA  
JULIO

➤ IRAILA  
SEPTIEMBRE

**B**ilbao

**golem**

gizartea eta kultura garaikidea  
sociedad y cultura contemporánea

**AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO**



# Hamar urtez zinema Azkuna Zentroan

2020an, Azkuna Zentroaren eta Golemen arteko hamar urteko harremana gogoratuko dugu, eta ziklo berezi bat izango dugu azken hamarkadan karteldegian izan diren lanik nabarmenenak erakusteko. Sorkuntza zinematografiko garaikidearen bilakaera eta gizartearekin duen konpromisoa erakusten dituen hautaketa.

Azkuna Zentroa Bilboko kultura zinematografikoaren erreferentzia-gunea da era askotako publikoen komunitateentzat, proposamen askotarikoa eta kalitatezkoa bilatzen baitute Zentroan, zirkuitu komertzialetan normalean izaten ez diren aukerak dituen.

Milaka pertsona etortzen dira urtero, Azkuna Zentroko zinema-espazioan antolatzen diren proposamenek erakarrira: [Zinematekako](#) zinema klasiko eta garaikideko zikloa jatorrizko bertsioan, ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira dagoen [BideOtik](#) programa, [FANT](#), Zinema Fantastikoaren Jaialdia; [Zinebi](#), Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Film Laburraren Nazioarteko Jaialdia; [Film Sozialak](#), Nazioarteko Zinema Ikusezineko Jaialdia; [Zinemakumeak Gara!](#) eta [Zinegoak](#), Bilboko Gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia.

Hori guztia hainbat eragilerekin lankidetzan egiten da, besteak beste, zazpi zinema-aretoak hasieratik kudeatzen dituen [Golem](#) operadorearekin, proposamen askotariko eta kalitatezko bat eskaintzeko.

Golemek filmak erakusten, banatzen eta ekoizten ditu, eta, estreinaldi komertzialez gain, munduko hainbat zinematografiaren produkzioak hurbiltzen dizkie ikusleei. Hamar urte hauetan, hainbat zuzendariren lana aurkeztu du Alhóndigan, besteak beste, Zhang Yimou, Kore-Eda edo Takeshi Kitano ekialdeko zuzendariena; Lars von Trier, Michael Haneke, Robert Guediguian eta Laurent Cantet autore europarrena, eta Estatuko eta Euskadiko Montxendem Martín eta Manuel Franco zinemagileena.

Susanne Bier zuzendari daniarraren [Mundu hobe batean](#) (2010) filmarekin hasten da zikloa. Oscar-etan, Urrezko Globoetan eta Europako Zinemaren Sarietan saritutako film honek globalizazioaren arazoetan murgiltzen gaitu, hala ikuspuntu geopolitikotik eta esku-hartze humanitarioaren aldetik, nola lurralde intimo eta familiarrago batetik.

Honako hau emakumeen berdintasun, eskubide eta duintasunaren aldeko borrokaren hamarkada izan da, eta mundu osoko zinemagileek islatu dute beren filmetan. Asghar Farhadi-ren [Nader eta Simin, bereizketa bat](#) filmak (2011) emakume irandarraren errealitatea erakutsi zigun, herrialde horretan emakumeek senarraren baimena behar baitute lan egiteko, besteak beste. Maysaloun Hamoud-en [Bar Bahar, bi munduren artean](#) (2016) film feminista ahizpatasunaren adibidea da. Tel Aviv-en bizi diren Palestinako hiru neska gazteren bizitza erakusten digu, zenbateraino baldintzatzen

dien tradizioek markatutako bizitzaren eta hiri handiko bizimoduaren artean aukeratu behar izateak. Arlo berean, Catherine Corsiniren *Udako amodio bat* (2015) lanak omenaldia egiten die abortismoaren aitzindariari, oso profil desberdinak dituzten bi emakumeren arteko harremana azalduz; haien bidez, 1970eko hamarkadako unibertsitateko errebindikazio-girora itzuliko gara.

Zinemak era askotako harreman pertsonaletara hurbiltzen gaitu. François Ozon-en *Etxean* (2012) lanak Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra lortu zuen. Hizkuntza-irakasle baten eta ikasle baten esperientziak jasotzen ditu; irakasleak kontakizunak idaztera animatuko du ikaslea, lagun baten bizitzan sartuz. *Amodioa* (2012) filmean, Michael Hanekek erretiratuta dauden adineko musika-irakasleen bikote baten harremana kontatzen du, eta denboraren iragaitez pentsarazten digu. *Etorkizuna* (2016) lanean bezala, film horretan Mia Hansen-Løve zinemagile frantziarrak denboraren iragaitea bihurtzen baitu protagonista.

Batzuetan zentzugabeak baina eraikitzaileak diren erlazioak, hala nola Maren Adek *Toni Erdmann* (2016) filmean deskribatzen duena. Kritikariren baten arabera, benetan dibertigarria den Alemaniako lehen komedia da. Canneseko Zinemaldian maisulantzat hartu zuten, eta estreinaldian ikusleek sutsuki txalotu zuten. Izaera garrantzia duen protagonistaren eta bere aitaren alter egoa den Toniren arteko

bidegurutze barregarria erakusten digu.

*Itxaropenaren beste alde* (2017) azken urteotako film gogoangarrietako bat da, Aki Kaurismaki zuzendaria etorkinen mehatxuaren estereotipo europarrarekin hausteko duen interesaren emaitza. Finlandiako saltzaile baten eta Helsinkin dagoen siriar errefuxiatu baten arteko harremanak hautsi egiten ditu klixehoriek guztiak.

Hamarkadan barrena egindako ibilbide hau Hirokazu Koreedarekin amaituko dugu. Zinematografia garaikideko zinemagilerik garrantzitsuenetako bat da, eta bere azken lanak, *Familia-kontu bat* (2018) izenekoak, Urrezko Palma eskuratu zuen Cannesko Zinemaldian eta Donostia Saria Donostiako Zinemaldian. Filmean, bere gai nagusietako bat jorratzen du: familia baten ezkutuko kontuak, istorioak eta haien arteko loturak.

Hamar film, hamarkada bateko ekoizpen zinematografikoaren zati bat berrikusteko edo ezagutzeko.

# Diez años de cine en Azkuna Zentroa

En 2020 recordamos los diez años de relación entre Azkuna Zentroa y Golem con un ciclo especial que refleja lo más destacado de la cartelera en la última década. Una selección que muestra el devenir de la creación cinematográfica contemporánea y su compromiso con la sociedad.

Azkuna Zentroa es el espacio de referencia de la cultura cinematográfica en Bilbao para diversas comunidades de públicos que buscan en el Centro una propuesta variada, de calidad y con opciones que habitualmente no se encuentran en los circuitos comerciales.

Miles de personas acuden cada año a este espacio atraídas por los ciclos de cine clásico y contemporáneo de la [Zinemateka](#) en versión original, las propuestas de [BideOtik](#), el programa que mira a otras narrativas audiovisuales; o los festivales como [FANT](#), el Festival de Cine Fantástico; [Zinebi](#), el Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao; [Film Sozialak](#), Festival Internacional de Cine Invisible; [Zinemakumeak Garai](#) o [Zinegoak](#), el Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao, que se organizan en el espacio de cine de Azkuna Zentroa.

Todo ello, en colaboración con diversos agentes entre los que destaca [Golem](#), el operador que gestiona desde el inicio las siete salas de cine, con una propuesta variada y de calidad.

Dedicada a la exhibición, distribución y producción de películas, Golem acerca a las personas espectadoras no solo estrenos comerciales sino también producciones de diferentes cinematografías del mundo. En estos diez años, ha presentado en la Alhóndiga el trabajo de directores orientales como Zhang Yimou, Kore-Eda o Takeshi Kitano; autores europeos de la talla de Lars von Trier, Michael Haneke, Robert Guediguian y Laurent Cantet, y de cineastas del contexto estatal y vasco como Montxo Armendáriz, Julio Medem, Imanol Uribe, Manuel Martín Cuenca o Fernando Franco.

El ciclo comienza con [En un mundo mejor](#) (2010) de la directora danesa Susanne Bier. La cinta, premiada en los Oscar, los Globos de oro y en los Premios del Cine Europeo, nos adentra en la problemática de la globalización, no solo desde un punto de vista geopolítico y la intervención humanitaria, sino también desde el territorio más íntimo y familiar.

Esta ha sido la década de lucha por la igualdad, los derechos y la dignidad de las mujeres y cineastas de todo el mundo lo han reflejado en sus películas. Con [Nader y Simin, una separación](#) (2011) de Asghar Farhadi nos mostró la realidad de la mujer iraní en un país en el que, por ejemplo, requieren el permiso del marido para trabajar. Maysaloun Hamoud firma [Bar Bahar, entre dos mundos](#) (2016), una película feminista, ejemplo de sororidad, que muestra cómo condiciona la vida de

tres jóvenes palestinas que residen en Tel Aviv la dualidad entre escoger una vida marcada por las tradiciones y la vida en la gran ciudad. En este mismo ámbito *Un amor de verano* (2015) de Catherine Corsini, rinde homenaje a las pioneras del proabortismo a través de la relación de dos mujeres con perfiles muy distintos, con las que volvemos al ambiente reivindicativo universitario de los años 70.

El cine nos acerca a las relaciones personales más diversas. *En la casa* (2012) de Françoise Ozon, Concha de Oro del Festival de Cine de San Sebastián, son las experiencias de un profesor de lengua y un alumno al que anima a escribir relatos metiéndose en la vida de un compañero. En *Amor* (2012), Michael Haneke retrata la relación de una pareja de maestros de música retirados y ancianos, que nos lleva a pensar en el paso del tiempo. Lo mismo que en *El porvenir* (2016), donde la cineasta francesa Mia Hansen-Løve convierte el paso del tiempo en protagonista.

Relaciones a veces absurdas pero constructivas, como la que describe Maren Ade en *Toni Erdmann* (2016). Definida por algún crítico como la primera comedia alemana realmente divertida, calificada como obra maestra en el Festival de Cannes y aplaudida por el público en su estreno, muestra el hilarante cruce entre la protagonista, con cierto carácter agriado, y Toni, el surrealista alter ego de su padre.

*El otro lado de la esperanza* (2017) es otra

de las películas memorables de los últimos años por el interés de su director, Aki Kaurismaki, en romper con el estereotipo europeo de la amenaza de los emigrantes. La relación entre un comercial finlandés y un refugiado sirio en un Helsinki, da al traste con todos esos clichés.

Cerramos este recorrido de una década con Hirokazu Koreeda, uno de los cineastas más destacados de la cinematografía contemporánea, y su último trabajo *Un asunto de familia* (2018), Palma de oro en el Festival de Cannes y Premio Donostia en el Festival de San Sebastián, donde aborda uno de sus temas centrales, los entresijos de una familia, sus historias y los vínculos que les unen.

Diez películas para revisar o descubrir parte de la producción cinematográfica de una década.

## EGITARAU / PROGRAMA

---

**9** UZTAILA  
JULIO  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**HÆVNEEN (CIVILIZATION) (2010)**  
MUNDU HOBE BATEAN / EN UN MUNDO MEJOR  
110'. DK

**16** UZTAILA  
JULIO  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**JODAEIYE NADER AZ SIMIN (2011)**  
NADER ETA SIMIN, BEREIZKETA BAT / NADER Y SIMIN, UNA SEPARACIÓN  
113'. IRN

**23** UZTAILA  
JULIO  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**DANS LA MAISON (2012)**  
ETXEAN / EN LA CASA  
101'. FR

**30** UZTAILA  
JULIO  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**AMOUR (2012)**  
AMODIOA / AMOR  
127'. AUT

**6** ABUZTUA  
AGOSTO  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**LA BELLE SAISON (2015)**  
UDAKO AMODIO BAT / UN AMOR DE VERANO  
105'. FR

**13** ABUZTUA  
AGOSTO  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**L'AVENIR (2016)**  
ETORKIZUNA / EL PORVENIR  
100'. FR

**20** ABUZTUA  
AGOSTO  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**TOIVON TUOLLA PUOLEN (2017)**  
ITXAROPENAREN BESTE ALDEA / EL OTRO LADO DE LA  
ESPERANZA  
98'. FI

**27** ABUZTUA  
AGOSTO  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**BAR BAHAR (2016)**  
BAR BAHAR, BI MUNDUREN ARTEAN / ENTRE DOS MUNDOS  
96'. ISR

**3** IRAILA  
SEPTIEMBRE  
Osteguna / Jueves

19:30

**TONI ERDMANN (2016)**  
162'. DE

**10** IRAILA  
SEPTIEMBRE  
Osteguna / Jueves

17:15  
19:45

**MANBIKI KAZOKU (2018)**  
FAMILIA-KONTU BAT / UN ASUNTO DE FAMILIA  
121'. JP

Film guztiak jatorrizko bertsoan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpiztitulatuak (JBGA)  
Sarrerak: Zinemako txarteldegian eta [golem.es](http://golem.es) helbidean

Todas las proyecciones son en Versión Original, con subtítulos en castellano (VOSE)  
Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en [golem.es](http://golem.es)

**5€ [4€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az] + info: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)**



**HÆVNEN (CIVILIZATION) (2010)**  
MUNDU HOBE BATEAN  
EN UN MUNDO MEJOR

110'. Danimarka / Dinamarca

Z/D: John Ford

G: Susanne Bier

A/R: Mikael Persbrandt, Trine Dyrholm, Ulrich Thomsen,  
William Johnk Nielsen, Markus Rygaard, Bodil Jørgensen,  
Toke Lars Bjarke, Camilla Gottlieb, Satu Helena Mikkelinen

Afrikako errefuxiatu-eremu batetik Danimarkako probintzia-hiri bateko egunerokotasun grisaxkarraino doa istorioa. Bi familiaren bizitzak gurutzatu egin dira, eta adiskidetasun harrigarri eta,aldi berean, arriskutsu bat sortu da. Baina bakardadea, hauskortasuna eta tristura zain daude, noiz ageriko. Laster, adiskidetasuna zena aliantza arriskutsu bihurtuko da, eta jazarpen eskerge ere bai, bizitza arriskatzeraino.

La historia va desde un campo de refugiados en África hasta la cotidianidad grisácea de una ciudad danesa de provincias. Las vidas de dos familias se entrecruzan y nace una extraordinaria, aunque arriesgada amistad. Pero la soledad, la fragilidad y la tristeza están esperando para aparecer. Muy pronto, la amistad se transforma en una peligrosa alianza y en una persecución desafortada con la vida en juego.

Oscar: Ingelesez ez den filmik onena; Urrezko Globoak: Ingelesez ez den filmik onena; Europako Zinemaren Sariak: Zuzendaririk onena. / Oscar: Mejor película de habla no inglesa; Globos de Oro: Mejor película de habla no inglesa; Premios del Cine Europeo: Mejor directora.



**JODAEIYE NADER AZ SIMIN (A SEPARATION) (2011)**  
NADER ETA SIMIN, BEREIZKETA BAT  
NADER Y SIMIN, UNA SEPARACIÓN

113'. Iran / Irán

Z/D- G: Asghar Farhadi

A/R: Peyman Moaadi, Leila Hatami, Sareh Bayat, Shahab Hosseini, Sarina Farhadi, Kimia Hosseini, Babak Karimi,  
Ali-Asghar Shahbazi, Shirin Yazdanbakhsh

Bere emazteak utzi ondoren, Nader-ek neska gazte bat kontratatu du, gaixo dagoen aita zain dezan. Baina ez daki neskame berria haurdun dagoela eta, okerrago dena, senarraren baimenik gabe lan egiten duela -oso gizon ezegonkorra bera-. Nader laster konturatuko da gezurrez, manipulazioz eta liskarrez betetako sare batean sartuta dagoela.

Cuando su esposa le deja, Nader contrata a una joven para que cuide de su padre enfermo. Pero no sabe que la nueva criada está embarazada y que, aún peor, trabaja sin el permiso de su marido, un hombre muy inestable. Nader no tardará en descubrir que está metido en una red de mentiras, manipulaciones y enfrentamientos.

Oscar: Ingelesez ez den filmik onena; Berlingo Jaialdia: Urrezko Hartza, gizoneto eta emakumezko aktorerik onena; Urrezko Globoak: ingelesez ez den filmik onena; Zinemaldia: 'Beste begirada bat' saria / Oscar: Mejor película de habla no inglesa; Oso de Oro Festival de Berlín: Mejor actor, mejor actriz; Globos de Oro: Mejor película de habla no inglesa; Zinemaldia: Premio 'Otra Mirada'





**DANS LA MAISON (2012)**  
ETXEAN  
EN LA CASA

101: Frantzia / Francia

Z/D-G: Françoise Ozon

A/R: Fabrice Luchini, Ernst Umhauer, Kristin Scott Thomas, Emmanuelle Seigner, Diana Stewart, Denis Menochet, Jean-François Balmer, Fabrice Colson, Bastien Ughetto, Stéphanie Campion

Frantseseko irakasleak bultzatuta, mutil batek foileto-erako idazketa bati ekiten dio, bi familiaren munduan sartuz: bata burgesia txikikoa, bere itxaropen eta frustrazioekin; eta bestea, bizitza intelektual eta artistikotik hurbilago. Errealitatea eta fikzioa nahasi egiten dira, joko burutsu batean nahasi arte. Baina zer asmo ilun ditu gazteak, eta noraino iritsiko dira haren trikimailuak?

Alentado por su profesor de francés, un chico empieza una redacción tipo folletín, penetrando en el mundo de dos familias: una perteneciente a la pequeña burguesía, con sus esperanzas y frustraciones; y otra más cercana a la vida intelectual y artística. La realidad y la ficción se entremezclan hasta confundirse en un juego ingenioso. Pero ¿qué oscuras intenciones esconde el joven y hasta dónde llegarán sus maquinaciones?

Zinemaldia: Urrezko Maskorra filmik onena eta gidoirik onena; Torontoko Jaialdia: FIPRESCI saria. / Zinemaldia: Concha de Oro mejor película y mejor guion; Festival de Toronto: Premio FIPRESCI.



**AMOUR (2012)**  
AMODIOA  
AMOR

127: Austria

Z/D-G: Michaël Haneke

A/R: Jean-Louis Trintignant, Emmanuelle Riva, Isabelle Huppert, William Shimell, Ramón Agirre, Rita Blanco, Alexandre Tharaud, Laurent Capelluto, Carole Franck, Dina Drukarova

Georges eta Anne musika klasikoko bi irakasle erretiratu dira, kultura handikoak, eta laurogei urteak beteak dituzte. Alaba ere musikan aritzen da, eta Frantziatik kanpo bizi da bere familiarekin. Halako batean, bihotzekoa izan du Annek. Ospitaletik itzultzean, gorputzaren alde bat paralizatuta dauka. Urte askoan bikotekideak lotu dituen amodioa arriskuan egongo da.

Georges y Anne, los ochenta cumplidos, son dos profesores de música clásica jubilados con una gran cultura. Su hija también se dedica a la música y vive fuera de Francia con su familia. Un día, Anne sufre un infarto. Al volver del hospital, un lado de su cuerpo está paralizado. El amor que ha unido a la pareja durante tantos años se verá puesto a prueba.

Cannesko Zinemaldia: Urrezko Palma; Oscar: Ingelesez ez den filmik onena; Urrezko Globoak: Ingelesez ez den filmik onena; Europako Zinemaren Sariak: film, zuzendari, emakumezko aktore eta gizezko aktorerik onena. / Festival de Cannes: Palma de Oro; Oscar: Mejor película de habla no inglesa; Globos de Oro: Mejor película de habla no inglesa; Premios Cine Europeo: Mejor película, director, actriz, actor.



**LA BELLE SAISON (2015)**  
 UDAKO AMODIO BAT  
 UN AMOR DE VERANO

105'. Frantzia / Francia

Z/D: Catherine Corsini

G: Catherine Corsini, Laurette Polmanss

A/R: Cécile De France, Izia Higelin, Noémie Lvovsky, Kévin Azaïs, Laetitia Dosch, Benjamin Bellecour, Patrice TePASSO, Jean-Henri Compère, Loulou Hanssen

1971. Delphine, nekazarien alaba, Parisera joan da familiaren uztarririk ihes egiteko eta ekonomikoki emantzipatzeko. Carole paristarra da, Manuelekin bizi da eta feminismoaren printzipioak defendatzen ditu. Delphinek eta Carolek elkar ezagutuko dute, eta maitasun-istorio horrek bizitza aldatuko die.

1971. Delphine, hija de campesinos, se va a París para huir del yugo familiar y conseguir emanciparse económicamente. Carole es parisina, vive con Manuel y defiende activamente los principios del feminismo. Delphine y Carole se conocen. Su historia de amor cambiará su vida.

Cesar Sariak: Emakumezko aktore onenaren eta bigarren mailako aktore onenaren sarirako izendatua. / Premios César: Nominada a mejor actriz y mejor actriz secundaria.



**L'AVENIR (2016)**  
 ETORKIZUNA  
 EL PORVENIR

100'. Frantzia / Francia

Z/D- G: Mia Hansen-Løve

A/R: Isabelle Huppert, Edith Scob, Roman Kolinka, André Marcon, Sarah Lepicard, Solal Forte, Elise Lhomeau, Lionel Dray, Marion Ploquin, Guy-Patrick Sainderichin

Nathalie Filosofia irakasten du Parisko institutu batean. Izugarri gustatzen zaio bere lana eta gozatzen du gogoeta eginez. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu. Familiaren, ikasle ohi batzuen eta amaren (oso emakume posesiboa) artean banatzen du denbora. Egun batean, senarrak esaten dio bera utzi eta beste emakume batekin joango dela. Askatasun horrekin, Nathalie bere bizitza berrasmatu beharko du.

Nathalie enseña Filosofía en un instituto de París. Su trabajo le apasiona y disfruta con la reflexión. Casada y con dos hijos, divide su tiempo entre la familia, algunos exalumnos y su madre, una mujer muy posesiva. Un día, su marido le dice que la deja por otra mujer. Con tanta libertad, Nathalie se ve obligada a reinventar su vida.

Berlingo Jaialdia: Zilarrezko Hartza, zuzendaritzarik onena. / Festival de Berlín: Oso de Plata mejor dirección.



**TOIVON TUOLLA PUOLEN (2017)**  
ITXAROPENAREN BESTE ALDEA  
EL OTRO LADO DE LA ESPERANZA

98'. Finlandia

Z/D-G: Aki Kaurismäki

A/R: Sakari Kuosmanen, Sherwan Haji, Kati Outinen, Tommi Korpela, Janne Hyytiäinen, Ilkka Koivula, Kaija Pakarinen, Nappu Koivu, Tuomari Nurmio, Niroz Haji

Helsinki. Siriako immigrante gazte bat (Khaled) ezkutuan heldu da Poloniatik iritsitako karga-ontzi batean. Bien bitartean, Wikström izeneko komertzial gatzgabeak erabaki du ezkontidearekin haustea, negozioa aldatzea eta jende gutxi biltzen duen jatetxe bat irekitzea. Haien bideak gurutzatu egingo dira, eta Wikströmek sabaia, janaria eta lana eskainiko dizkio Khaledi. Baina mutikoaren ametsa ahizpa aurkitzea da, hark ere Siriatic ere ihes egin baitzuen

Helsinki. Khaled, un joven inmigrante sirio, llega oculto de polizón en un barco de carga procedente de Polonia. Mientras, un comercial anodino llamado Wikström decide poner fin a su matrimonio, cambiar de negocio y abrir un restaurante poco frecuentado. Sus caminos se cruzarán y Wikström ofrecerá a Khaled techo, comida y trabajo. Pero el sueño del chico es encontrar a su hermana, que también huyó de Siria.

Berlingo Jaialdia: Zilarrezko Hartza zuzendaririk onena. / Festival de Berlín: Oso de Plata mejor director.



**BAR BAHAR (2016)**  
BAR BAHAR, BI MUNDUREN ARTEAN  
BAR BAHAR, ENTRE DOS MUNDOS

96'. Israel

Z/D-G: Maysaloun Hamoud

A/R: Mouna Hawa, Shaden Kanboura, Sana Jammalieh

Leila, Nour eta Salma Tel Avivren bizi diren Israelgo hiru palestinar dira, etxebizitza eta bizipenak partekatzen dituztenak. Filmak hiru emakume gazteek eguneroko bizitzan duten dualtasuna islatzen du, tradizioaren eta hiri handiko bizitzaren artean harrapatuta baitaude. Era berean, gehiengoak normaltzat jotzen duen bizimodua egitegatik –lan egiteko, dibertitzeko eta aukeratzeko askatasuna izategatik– ordaindu behar duten prezioa ere azaltzen du.

Leila, Nour y Salma son tres ciudadanas palestinas de Israel que viven en Tel Aviv, donde comparten piso y vivencias. La película plasma la dualidad a la que las tres jóvenes mujeres se ven sometidas en su vida diaria, atrapadas entre la tradición y la vida en la gran ciudad, así como el precio que deben pagar por un estilo de vida que la mayoría considera normal: la libertad de trabajar, de divertirse y de elegir.

Donostiako Zinemaldia: 'Beste begirada bat' saria, Gazteriaren saria. / Festival de San Sebastián: Premio 'Otra mirada', Premio de la Juventud.



## TONI ERDMANN (2016)

162'. Alemania

Z/D-G: Marek Ade

A/R: Peter Simonischek, Sandra Hüller, Lucy Russell, Trystan Pütter, Thomas Loibl, Hadewych Minis, Vlad Ivanov, Ingrid Bisu, John Keogh, Ingo Wimmer

Inèsek Bukaresten finkatuta dagoen Alemaniako aholkularitza-entresa garrantzitsu batean egiten du lan. Bere bizitza estresagarria ezin hobeto antolatuta dago, harik eta aita ireki eta bromazalea (Winfried) bat-batean iritsi eta ea zorionsua den galdetzen dion arte. Ez da horri erantzuteko gai, eta, ondorioz, aldaketa sakona izango du bizitzan. Batzuetan traba egiten dion eta lotsarazten duen aita horrek berriz emango dio laguntza bizitzari zentzua ematen, irudimenezko pertsonaia bati esker: Toni Erdmann dibertigarriari esker.

Inès trabaja en una importante consultora alemana establecida en Bucarest. Su estresante vida está perfectamente organizada hasta que su extrovertido y bromista padre Winfried llega de improvisado y le pregunta ¿eres feliz? Tras su incapacidad para responder, sufre un profundo cambio. Ese padre que a veces estorba y que la avergüenza un poco le va a ayudar a dar nuevamente sentido a su vida gracias a un personaje imaginario: el divertido Toni Erdmann.

Cannesko Zinemaldia: FIPRESCI Saria. / Festival de Cannes: Premio FIPRESCI.



## MANBIKI KAZOKU (2018)

### FAMILIA-KONTU BAT UN ASUNTO DE FAMILIA

121'. Japonia / Japon

Z/D-G: Hirokazu Koreeda

A/R: Kirin Kiki, Sôsuke Ikematsu, Lily Franky, Moemi Katayama, Sakura Ando, Mayu Matsuoka

Ohiko lapurreta bat egin ondoren, Osamuk eta bere semeak neskatila bat aurkitu dute kalean, hotzak hartuta. Hasieran, Osamuren emazteak ez du nahi neska haiekin gera dadin, baina, azkenean, errukitu egingo da. Zailtasunak gorabehera, eta lapurreta txikiei esker, familia zorionsu bizi da, ustekabeko gorabehera batek haien arteko loturak arriskuan jarriko dituen sekretua azaldu arte.

Después de uno de sus habituales hurtos, Osamu y su hijo encuentran a una niña en la calle, aterida de frío. Al principio, la mujer de Osamu no quiere que se quede con ellos, pero acaba apiadándose de ella. A pesar de sobrevivir con dificultades gracias a pequeños robos, la familia es feliz, hasta que un incidente imprevisto revela un secreto que pone a prueba los lazos que les unen.

Cannesko Zinemaldia: Urrezko Palma. / Festival de Cannes: Palma de Oro.

**LABURDURAK / ABREVIATURAS****A/R:** Aktoreak / Reparto**G:** Gidoia / Guion**Z/D:** Zuzendaritza / Dirección

Irudiak / Imágenes: lmbd

**SARRERAK / ENTRADAS**Zinemako txarteldegian eta [golem.es](http://golem.es) / Taquillas del cine y [golem.es](http://golem.es)**5€ [4€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az]****INFORMAZIO ERABILGARRIA**

- Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpigitulatuak (JBGA).
- Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Informazio gehiago: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)
- Filma proiektatu baino 30 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.
- Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)-en jakinarazita.
- Liburuxka hau etxera eramatea gomendatzen dizugu..

**INFORMACIÓN ÚTIL**

- Todas las proyecciones son en versión original subtitulada en castellano (VOSE).
- La programación de Zinemateka está sujeta a cambios de última hora. Más información: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)
- Abrimos la sala 30 minutos antes de la proyección de la película. Te recomendamos que acudas con unos minutos de antelación porque, una vez empezada la película, no se puede acceder a la sala.
- En caso de fuerza mayor, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)
- Te recomendamos que te lles a casa este folleto.

Zinema eta ikus-entzunezko programazio osoa kontsulta ezazu:

Consulta toda la programación de cine y audiovisuales:

**[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)**

**INFORMAZIO OROKORRA ETA PROTOKOLOAK**  
**INFORMACIÓN GENERAL Y PROTOCOLOS**

---

**Gogoan izan | Recuerda:**



**Zure maskara erabili**  
**Usa tu mascarilla**



**Distantzia mantendu**  
**Mantén la distancia**



**Espazioetara sartu baino lehen eta irteterakoan**  
**Antes y después de entrar a los espacios**



**Estali zaitetz eztl edo doministiku egitean**  
**Cúbrete al toser o estornudar**



**Ez ukitu aurpegia**  
**Evita tocarte la cara**



**Ez ukitu azalera komunak. Egiten baduzu, garbitu eskuak**  
**Evita tocar superficies comunes. Si lo haces, lávate las manos**



**Besaulkiak esleitzen ditugu, segurtasun-tartea bermatzeko**  
**Asignamos butacas para garantizar la distancia de seguridad**



**Erosi sarrerek online edo ordaindu txartelarekin**  
**Compra las entradas online o paga con tarjeta**



Gure programazioari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jar zaitetz harremanetan Az-rekin / Si quieres recibir información de nuestra programación comunicate con Az:

**azkunazentroa.eus**

info@azkunazentroa.eus

PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO

944 014 014



**B**

**Bilbao**

gizartea eta kultura garaikidea  
sociedad y cultura contemporánea

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

